

# Gabriel Aresti eta Arantzazu

**PAULO AGIRREBALTZATEGI**

Idazlea eta *Jakinen* Kontseilu Editorialeko kidea

2013ko uztailaren 4an ekitaldi oso deigarria gertatu zen Arantzazun: bertako Liburutegiak Gabriel Arestiren *Harrizko Herri Hau* liburuaren jatorrizko eskuizkribua itzuli zion Meli alargunari. 40 bat urtez jaso eta gordea zuten fraideek, liburuaren editoreak eskatuta eta Kandido Zubizarreta orduko liburuzainaren ardurapean utzita. Egun haietako hedabide sozialek eurrez jaso eta zabaldu zuten gertakariaren berri. Esker onez eta hunkituta berreskuratu zuen Melik senarraren eskuizkribua. Liburua familiaren eskuetan uztea baino gehiago izan zen, ordea, ekitaldia: Arestiri omenaldi sentitua egin nahi izan zioten Arantzazuko fraideek, hark santutegiarekin eta bertako hainbat fraiderekin izandako harremana, lankidetzaz eta adiskidetasuna gogoratuz.

Gazte-gaztetatik izan zuen Gabriel Arestik harremanik Arantzazurekin. Bitoriano Gandiagak berak 1956 inguruan ezagutu omen zuen hantxe. 23 urte zituen orduan poeta bilbotarrak. Euskal literaturaren mundura agertu berria zen *Euzko-Gogoako* bere lehen olerkiekin: 1954an-edo (ik. Joxe Azurmendi, «Gabriel Arestiren tintazko bataioaz», *Jakin* 62, 1991, 129-142, 129-130. or. Behin baino gehiagotan aipatu-

ko dudan 14 orrialdeko idazlan hori, *Azurmendi-1991* izendatuko dut; bertan, Euzko Gaztediko Andoni Arozenari Arestik Arantzazutik idatzitako erantzun-gutunaren berri eman zigun: *Aresti: Gutuna* izenez aipatuko dut Arestiren testua).

Ondorengo urteetan estutuz joan ziren haren harremanak Arantzazuko fraideekin, 1960tik aurrera —Bilbon bizi zen Imanol Berrituarengandik hasita—; batez ere *Jakin* aldizkariarekin: Joseba Intxausti, Kepa Enbeita eta bereziki Joxe Azurmendi.

### *Harri eta Herri. Arantzazu*

*Harri eta Herri* da (1964) Arestiren poema-liburuetan gailurrekoena. Horren atalik handiena Oteizari eskainia da zuzenean; *Quousque tandem* (1962) obra da poema-liburuaren ezkutuko erreferentzia nagusietakoa, uste dudanez. Baina aurrenik, eta Oteizaren liburua baino lehenago, Arantzazuko apostolu-harriak ezagutu zituen Arestik, bertako plaza-bazterrean baztertuta. Basilika berrian Oteizak lantzeko frisoko apostoluen obra geratuta zegoen garai hartan, Eliz debekuaren ondorioz. Arantzazura joaten zen bakoitzean harriduraz ikusi ahal zituen harri-blokeak lurrian etzanik; biziki haserretzen omen zen. Harri horietatik ezagutu zuen aurrenik Oteiza Arestik, bere poeman dioenez («Profeta bati (Jurgi Oteizari azaldu nahirik)» poema, *Harri eta Herri*, IV, Q):

Nik ez dut Jurgi Oteiza eskultorea ezagutzen,  
baina hainbeste bider ikusi ditut haren harriak,  
haren apostoluak  
[...]  
kamino gaitz horretako bazterretan eroririk  
[...]

Beraz, *Harri eta Herri* liburuaren azken arrazoiak, Oteizaren liburuan beste, Arantzazuko apostolu-harrietan daudela esan daiteke... eta Arantzazu harrizkoan: «Harria / edo-

nundikan harria. / Harrizko dorrea» ikusten baitu Arantzazun («Atzo ezagutu nuen» poema, *ibid.*, IV, M).

Neurri handi batez, Arantzazun —«Arantzazu polilitoa», beraren esatez— sustraitua eta girotua dago, beraz, Arestiren poema-liburu adierazgarriena. Hori berrestera datoz, bestalde, Joxe Azurmendiri —Joxeperi— liburu berean eskainitako olerkiak (III. parte, Z poema, eta IV. parte, M poema). Arantzazuko Teologiako ikaslea zen Joxe Azurmendi, eta Jakin aldizkariaren zuzendaria (1962-1963). Oso adiskide egin zen Aresti Joxeperekin, eta adiskidetasun horixe kantatzen du olerkiotan, Arantzazu bera kantatzearekin batera. Laguna ezagutu zueneko kontakatzen digu laugarren parteko M olerkian:

Atzo ezagutu nuen  
nire laguna.  
Zerura pagatu nuen kotxea.  
Oñatin bazkaldurik  
Arantzazu gora  
bertan topatu nuen  
fraile buru motza.  
Atzo ezagutu nuen  
nire laguna  
[...]

## Aresti eta arantzazuar literatura

«Arantzazuar» literaturak mendetako historia du, XV.aren azkenetan erromesak bertako balada edo kanta zaharrak asmatzen eta kantatzen hasi zirenetik gaur arte datorrena. Arantzazuar literatura ez da bertako fraideek edo erromesek egindakoa bakarrik, Arantzazuren inguruan sortu edota Arantzazu kantatu izan duen literatura da —herritarra nahiz aditua—. Historia horretan leku berezia du Arestik, eta ez aipatua dugun *Harri eta Herri* obrarengatik bakarrik. Lehenagokoa da haren harreman literarioa Arantzazurekin, 1961ean *Jakin* aldizkarian argitararazi zuen bere «Azken poema» txikitik hasita. Literatur sariketetako batean lehen saria jaso ez izanak min handia eman zion Arestiri, eta etsi-

pena eragin ere bai itxuraz. Poesia bertan behera uztea erabaki zuen nonbait bere baitan; eta bere «Azken poema» idatziz zuen:

Kantsazioaren aitzakiarekin  
nire gradotik  
dimisioa  
presentatzen dudalarik,  
beste enplego  
nekagarriago bat  
onartzen dut.

Jendaurrean aldarrikatu nahi izan zuen, ordea, bere «dimisioa», eta Arantzazuko «lagunarengana» jo zuen, *Jakin* aldizkarian argitara zezan... Horretan poesiarik ez argitaratzea erabakita zeukaten arduradunek; baina adiskidetasunaren izenean-edo, «mehatxu» eta guzti, behartu egin zituen bere azken poesia argitaratzera. Eskela itxuran argitaratu zuten (15. zk., 1961, 97. or.). «... beste enplego nekagarriago bat onartzen dut» beste honetara aldatu zuen gero: «Beste enplego zorionsuago bat onartuko nuke»... Zorionez ez zuen aurkitu, eta poesia lantzeari ekin zion lehen baino kemen are handiagoz!

Anekdota bitxi horretaz at, jakin beharrekoa da Arestiren lehen antzerki-obra —*Mugaldeko herrian eginikako Tobera*, 1961— Arantzazuko Teologiako ikasleek antzeztu zutela lehenbizikoz, Arestik berak aitortua duenez, gorago aipaturiko gutunean. Gabonaldietan hainbat antzerki egin ohi zuten Arantzazuko ikasleek; horietako bat izan zen nonbait Arestirena, 1962ko Gabonetan. Bestalde, Iratzederren *Pasionea* obra ere behin baino gehiagotan antzeztu zuten Arantzazun bertako fraide ikasle gazteek, Aste Santuan. Bestelakorik ere eskura eduki nahi, eta horrelako ekitaldien sustatzaile zen Jose Goitia fraide irakasleak Arestiri eskatu zion idatz zezala antzerkiren bat, Aste Santuan Arantzazun antzezteko... Baita idatzi ere, bat behintzat: «... Eta gure heriotzeko orduan» (1964an *Egan* aldizkariak argitaratua). Dena dela, ez zuten gero antzeztu Arantzazun; Iratzederren

*Pasionearen* ordezkotzat ez zuten ontzat eman nonbait (ik. Gabriel Aresti, *Literatur lanak*. 7. Antzerkia, Susa, 1986, 280. or.). —Jakitekoa da Iratzederren miresle ere bazela Aresti.

Arestiren Arantzazu: poesia, argia, euskara...  
Paradisua!

Euskararen eta euskal literaturaren —poesiaren— erreferentzi gune garrantzizkotzat zeukan Arestik Arantzazu. «Poeta bikaintzat» dauka Salvatore Mitxelena, eta esker oneko zaio, bere antzerkiren bat defenditu zuelako (Aresti: Gutuna, in: Azurmendi-1991, 133. or.). Lizardiren eredu gailurtzat jotzen ditu Bitoriano Gandiaga eta Antonio Bilbao, bi poeta bizkaitar, biak Arantzazuko fraideak; eta batez ere bere hurbileko poetatzat dauka Joxe Azurmendi (Aresti, Gabriel: «Gaurko euskal poesia», *Zeruko Argia* XXVIII/100, 1965-01-24, 9. or.).

Oso ikuspegi idealista eta zerutiarra dauka Arestik Arantzazuri buruz: aski da Azurmendiri eskainitako olerkiak irakurtzea (*Harri eta Herri*, III, Z):

Joxepe  
nire laguna  
hurrun dago  
han goian,  
zerutik hurbil,  
eta ni berriz  
hemen behean,  
osin ilun honetan  
Bilbo deritzan  
infernu honetan...  
Hura han goian,  
Arantzazu deritzan  
gailur haretan,  
paradisuharetan...

S. Mitxelenak eta garai hartako Arantzazuko zenbait sermolarik baino ikuspegi dikotomikoagoa, alajaina! Goraipamen idealista berberera dator «Atzo ezagutu nuen / nire laguna» poemaren ere (*ibid.*, IV, M):

Joxepe lagun maitea:  
Nun da zeruko atea?  
Kanta dezagun batea!  
Apur dezagun katea!  
Begira nola dagoen  
harana  
hodei beltzez estaldurik, harantza  
nire deseoa haize hotzak  
darama.

Zerutarra delako ez ezik, euskararen babeslekua delako ere bada agian paradisu Arestirentzat Arantzazu, Bilbori kontrajarrita edo. Honetara idatzi zion Venezuelako bere kritikatzaileri:

Ni nire herrian bizi naiz, nire herri artean. Orain ere, hitz hauk paperaren gainean eskribitzen ditudan momentu honetan bertan ere, nire herrikideen artean, Arantzazu deritzan paradisu honetan. Nire inguruan (bazkalostea da, eta ehun bat erromesek bazkaltzen dute Oñati gaineko ostatu honetan) euskeraz besterik ezta entzuten (Aresti: Gutuna, in: Azurmendi-1991, 132. or.).

Areago, euskal abertzaletasunaren ikurtzat hartzen du nonbait Arestik Arantzazu. Horregatik handixe egin nahi du bere abertzaletasun-aitorpena, Andre Maria testigutzat hartuz:

Gauza bat zin egiten dut Arantzazuko amaren aurrean gaur, eta nere bi alaben ohorearen aurrean, abertzalea naizela, buruko puntatik eta behatzetaraino (*ibid.*, 134. or.).

Eta honetara amaitu zuen bere gutuna: «Nerean, eta nere herriarenean: Biba Euskalerria libre! Arantzazu, 1963/III/17an».

## Bitoriano Gandiaga eta Gabriel Aresti

Gandiaga izan da Arantzazuko poeta enblematikoena Arestiren belaunaldiarentzat, eta euskal literaturan oihartzunik handienekoa. 1928an jaioa, Aresti baino bost urte zaharragoa zen —esanda geratu da 1956an— edo ezagutu zuela hori Arantzazun—. Batek baino gehiagok aztertu izan ditu bi poeten arteko kidetasun eta ezberdintasun pertsonal

eta literarioak. Hemen Felipe Juaristiren «Aresti eta Gandiaga. Ohar batzuk / Breves notas sobre Aresti y Gandiaga» (*Euskonews* 77, 2000-05-12) eta Iñaki Sarriugarteren «Bitoriano Gandiaga eta Bilbo» (*Litterae Vasconicae* 8, 2001, 279-294) idazlanak azpimarratu nahi ditut.

Gandiagaren beraren aitoren mingotsa da hemengo hau:

Esan beharra dago: *Elorrik* ez zuen norbaitzuegan estimazio haundiegirik izan. Sinbolista, intimista eta horrelakoa omen zelako. Modan zegoen modua, ni *Elorri* egin eta gero enteratu nintzen bazenik ere, baina soziala zela. *Elorriko* poesia zaharkitua zela, pasea.

Felipe Juaristi, idazlea eta literatur kritikaria, «lasaitzera» datorkio:

Poesia, ordea, ez da inoizkoa. Gaurkoa poesia baldin bada, edo poesiatzat jotzen badugu, biharkoa ere poesia izango da, eta etzikoa ere bai [...] Alde horretatik seguru nago, Gandiagaren *Elorrik* iraun egingo duela, bere garaiko liburu askok iraungo ez duten tokian.

Gabriel Arestik ere iraganekotzat kritikatu zuen Gandiagaren *Elorri*, bere *Maldan behera* lehen poesi-obra (1960) halakotzat jota zeukan bezala. Arestik, ordea, iritzi oso onean zeukan Gandiaga poeta, baita *Elorri*ren garaiko autorea ere:

Zorionez frutu berriak eman ditu Lizardiren arbolak, eta frutu hoietatik zilegiztatzten da eskola horren izaera; bi bizkaitar dira. Bitoriano Gandiaga eta Antonio Bilbao-Monasterio.

Baina aholku modukoa damaie jarraian («Gaurko euskal poesia», *Zeruko Argia* XXVIII/100, 1965-01-24, 9. or.):

Orain biak txit sariztatuak dira, baina hemendik hogoi urtera, ez dakit nik zertan geratuko den hoi poetatza, baldin eta eskola berrietara aldatzen ez badira.

Izatez, eta Joan San Martinek idatzia duenez, Arestik berak proposatu zuen Gandiaga euskaltzain urgazle izateko, 1964an, *Elorri* liburua argitaratu eta berehala, beraz (ik. Arana Martija, Jose Antonio: «Orbelaungo landarea Arantzazun zuhaitz», in: *Bitoriano Gandiaga eta Mendata*, Bilbo, 2001, 150. or.).

Norbaitek idatzia duenez, bestalde, Arestik berak ere Gandiagaren esperientzia mingots bertsua izan zuen bere lehen obra poetikoaren ondoren:

Comenzó [Aresti] su andadura literaria con una obra de carácter simbolista, *Maldan Behera (Cuesta abajo)* [...] Esta primera obra tuvo escaso éxito de crítica, sumiendo al escritor en una crisis creativa. En esta época conoció a Blas de Otero quien compartía inquietudes artísticas y sociales, en la Tertulia de La Concordia, y este hecho pudo influir en el giro de su trayectoria poética [*Harri eta Herri etorri zen*]» (Wikipedia).

Zuzenean gogoratzen digu testu horrek Gandiagaren beste aitorten hau:

Gero [*Elorri* argitaratu ondoren], hamar bat urtetako mutu aldi ta meditatze aldi baten ondoren, sozial eta erreibindikaziozko poesiara aldatu nintzen. Aresti, Azurmendi-ta baino beranduago. 1967-tik 69ra bitartean *Hiru gizon bakarka* idatzi nuen, «Oteitzaren eskaritik Herriarenak entzunik» (Loiola Irratian elkarriketa, 1977).

Bi gizon eta poeten urruntasuna eta hurbiltasuna, biak batera, beraz? Aresti eta Gandiaga, gizon eta poeta, oso ezberdinak ziren, hori bai:

Gandiaga baikorra da. Aresti, ez. Gandiaga inozoa. Aresti, ez. Gandiagak, *Elorri* idatzi zuenean, ez zuen gaizkia ezagutzen, bere bizitzatik aparte utzia zuen. Gandiagak ez zuen hiririk ezagutzen, ez zuen Arantzazuz eta bere jaiotetxeaz aparte beste lurrik ezagutzen, liburuetan izan ezik [...] Aresti, mailuz jota, harriari kantan hasi zen. Gandiagarena, ordea, ez da harrizkoa, lurrezkoa, buztinezkoa, baizik.

Juaristiren hitzak dira, agian ertz biziegikoak; baina hona jarraian berak:

Oso urruti zeuden elkarrengandik Aresti eta Gandiaga, garai hartan. Baina poesiaren indarra haxe da, lehen elkarrengandik urruti zeudenak hurbildu egiten ditu elkarrengana.

Benetakoa izan zen hurbilketa eta elkarrenganako mirespena. Horren seinale da, Gandiagaren aldetik, *Uda batez Madrilen* libururako idatzita utzi zuen eskaintza hau, gero



liburuan sartu gabe geratu zena, seguruenik tartean hil egin zelako Aresti.

Hitzari  
 poesiako  
 ate nagusiak  
 zabaldu zizkion  
 Gabriel Arestiri.

Gandiagarentzat «sua» zen Aresti, Sarriugartek seinalatua duenez; agian harria baino gehiago; beharbada «lurra» zen Gandiaga Arestirentzat.

«Gabriel Arestiren Aitormeneta» eta omenetan

1975ean hil zen Aresti. Hileta zibila egin zioten. Norbait, Gandiaga han ikusi eta hitzen bat esateko eskatu zion itxuraz. Ustekabean hartu zuen eskaerak nonbait Gandiaga, baina ukorik ezin egin; eta bere hitzak esan zituen, eta, dirudienez, aurretik gogoetatuak zituenak. Bada testu bat harren artxiboan, Arestiren hiletaren ondoren idatzia behar duena, gaztelaniazko itzulpen eta guzti, eta hiletako bere lekukotasunaren berri utzi diguna, seguruenik lagunek edo familiakoek hala eskatuta. Luzetxo bada ere merezi du hemen ematea:

Neure berri emanez hasiko naiz: fraide eta apez naiz, bai poeta eta Gabrielen adiskide ere. Errespetatzen dut Arestiren nahia: Ez zuen elizfuntziorik nahi ukan, ez kanpai hotsik, ez ohiturazko elizkizunik. Ez nator Elizaren izeneta. Naizan bezelakotan nator, naizanik ezer ukatu gabe. Onartzen dut Juan San Martinek eta Haranburu Altunak Arestiren gorapenez esan dutena. Nik mundu hontakoz beste dimensio batetan, betiko bizitzan sinesten dut eta guztiok salbatu nahi gaituen Jaungoikoagan. Jainkoaz ukan ditzakegun ideia eta iritziak gorabehera, salbatuko gaituen Jainkoagan sinesten dut. Gure zekenkeri, txikikeri eta grinetatik libre irizten duen Jainkoagan sinesten dut. Eta ez gure erara, baina guztiz bestetara eta Bere modutara —«Zuk bakarrik dakizula fededun hil diren guztiak»— iritzi diola-ta nago gure adiskide Gabrieli, eta Bere gloriatan harturik ukanen duela uste dut. Eta Jainkoaren jokabide hau ezagutzean, Aita deitzera be-

harturik aurkitzen naiz, eta guztion aurrean Hari Aita deitzeneko atsegina ukan nahi dut. Eta nik sinesten dutanetan sineste duten guztiek esan dezakete nerekin «Gure Aita»: Gure Aita... (Askok erantzun zuten). Jainkoak bere paketa ukan dezala gure adiskide Aresti. Amen.

1978an Arestiren omenezko ekitaldia antolatu zuen Gipuzkoako Aurrezki Kutxak, non hainbat poetak hartu baitzuen parte. Hiru olerki idatzi zituen Gandiagak ekitaldirako: «G. Arestiren Aitormeneta» da horietako bat (*Agiriak. Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez*, GAP, 1978, 98-101). Zoritzarrez ordenaz aldatuta daude ahapaldiak, inprimategian Gandiagaren jatorrizko testua gaizki interpretatuta edo; dagokion ordenan ekarri dut hona, idazlan hau burutze aldera —berorren kopia eskaini zioten fraideek Arestiren alargun Meliri Arantzazuko ekitaldian.¶

## Gabriel Arestiren Aitormeneta

### *Bitoriano Gandiaga*

«Nire aitaren etxea  
defendituko dut», esan zuen  
bat bateko suak.

Deihadarrak entzun ziren  
suaren kontra  
lekaioak suaren alde.

Urez heldu zitzaizkionak  
indartu egin zuten;  
adarrez eraso ziotenek  
haserretu.

Bere baitariko haizeak zeragion su  
azkarra zen.

Alferrik ginen urruti  
ilinti zaharrak gordetzen,

bat baterako argi beroak  
jo ginduen ta itzul arazi.

Ta sortzaile zetorren,  
bihurri ta martzal;

zaharkinei atxikiz, aitareneko  
ganbara ta ate-osteko  
ezertarako ez zen oro  
erre zuen  
ta argia sartu etxean,

baliorik  
eta etorbiderik zuena  
harri ta herriren  
begitan jarriki.

Erreturan  
belar berria erne da,  
garia, bideak,  
ihardun-poza.

«Nire aitaren etxea  
defendituko dut», dio  
«HARRI ETA HERRI»tatik  
abots gorenak.

«Nire aitaren etxeak  
iraunen du  
zutik», darantzuio  
«HARRIZKO HERRI HAU»  
beteko  
erantzunak.